

# SANTA KATALINA, XIV. MENDEKO ERRETAULA HONDAKINETAN




ondarribiko eliz nagusiaren ikerlanez burutu dudana *Santa María de la Asunción* deritzon liburua, laister agertzekotan da.

Gazteleraz egin dut, eskuratu ahal izan ditudan ageririk gehienak hizkuntza horretan zeuden ezkerro eta horren arabera zenbait testuren lekukotasuna zuzenago eman beharrez.

Lehenago berpizkunde garaiko Joanes Iriarte eskultore erromanistaren erretaula hondakinez aritu nintzen bezala (ikus «Joanes de Iriarte eskultorearen mendeurrenean» zeritzon artikulua *Hondarribia*, 66.zenb., 20-21. orr.),

1918. urtean López del Valladok begiz jo zituen elizaren erretaula zaharrekotzat, baina ikerkuntza ez zuen sakondu, gainera ez zuen jakin edo igarri, karaitz harri-zuriz eginak, marmol eta alabastroren artean bereizten, bere ustez marmolezkoak bai ziren. Lehenago, Xavier de Cardailac-ek *Promenades artistiques, Fontarabie* (1896) liburuaren 221. orrialdean ondare bitxitzat aipatzen zituen, gotiko zaharreko zatiak ziren iritzia azalduz.

Santa Katalinaren alabastro panel horiek M<sup>a</sup> Asunción Arrazolak *Fuenterrabia* (1974) deritzon liburuskaren 64. orrialdean aipatu



oraingoan, lehenago toki berean zen eliza erromanikoan egon zen XIV. mendeko erretaularen hondakin direnaz arituko naiz, alabastroz eginak eta Alexandriako Santa Katalina martirearen historia gaia adierazten digutenak.

zituen eta 65.ean horietako baten argazkia orrialde osoa beteaz argitaratu zuen. Baina ez zigun bestelako argitasunik eskaini.

Florentino Portu zenak bere monografian zioenez, XVI. mendean kendu omen zuten





erretaula hura, hiritarren ustez eliza berrian txikiegia izateaz gainera zerbait hondaturik zegoelako. Ikus F. Portu, *Fuenterrabía, Notas Históricas y curiosidades* (1975), 312. orrialdea. Edo, Gipuzkoako Diputazioak bigarren argitalpenez, 1989an atera zuenaren 556. orrialdean. dena dela, bere ordeztu zen XVI. mendean Joanes Iriarteri eskatu zien erretaula berria, eta orain bere zatiak sakristian daude.

Nire ikerketak jarraituz lortu nuen jatorriz Ingalaterrakoak zirela. Han, Nottingham, York edo Londres-en ziren tailer haietarikoren baten eginak noski, zeintzutatik XIV. eta XV. mendeak zehar Europa osora zabandu zituzten euren arte lan berezi horiek.

Euskal Herriko kostaldean badira Ingalaterrarekiko merkataritza bidez ekarriak, adibidez Plentzian dugu lekukotasunetariko bat. Baina Hondarribikoak dira, eta ez beste, Victoria and Albert Museum delakoaren English Medieval Alabasters sailako katalogoan aipatzen diren bakarrak. Hala ikus dezakegu Francis Cheetman-ek burutu zuen *English Medieval Alabasters with a catalogue of the collection in the Victoria and Albert Museum* (Oxford, 1984). Katalogo honek Europako mapa dakar azken partean erantsirik, Ingalaterran eginikoak non dauden tokiz-toki adieraziz eta bertan dator Hondarribia.

Erretaula haren zatietatik gorde direnak, lau pieza guztira, gotiko estilozkoak dira. Horietako hiru eskuberetik edo lantegi berean eginak noski, hirurak aski hondatuak, Alexandriako Santa Katalina martirearen historia adierazten dute. Laugarrena ordea, handiagoa eta beste esku batetik egitura nabari duena, beronen irudiak Kristoren piztuera aurkezten digu.

Ondare baliagarritzat har ditzagun, zein arte aldetik edo historiaren ikuspegitik, eta behar bezala zainduz gordetzea ondo merezi dute.

## JUAN SAN MARTIN



**LA HERMANDAD**  
**LA TEXEA**

Zuloaga Kalea, 7/a.  
Telf. 64 27 58.  
**HONDARRIBIA**

**ARRAUN & ELKARTEA**  
**GIMNASIOA**

AEROBIC/FITNESS  
MUSKULAZIOA  
MANTENIMENDUZKO  
GIMNASIA  
ERREHABILITAZIO  
GIMNASIA + MASAJEAK

- SAUNA DOHAINIK -

**BAKARRIK 3.000 PZTA/HILERO**  
HONDARRIBIKO ARRAUN ELKARTEA (PUNTALA)  
☎ 934 640 161 - (9,30 - 1 / 4 - 7,30)

**AUTO - ESCUELA**  
**ALZAGA**

A-1, A-2, B, C, D eta E  
KARNETEN TRAMITAZIOA

Uranzu, 37 • Tel.: 62 16 27 • Fax: 62 33 95 IRUN  
Zuloaga, 12 • Tel.: 64 16 23 HONDARRIBIA  
C/ Fuenterrabia, s/n • Tel.: 61 72 12 IRUN